



**IGORREKO II. MUGIKORTASUN FOROAREN AKTA:
IGORREKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN
PLANAREN EKINTZA PROPOSAMENAK**
ACTA DEL II FORO DE MOVILIDAD DE IGORRE:
PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS DE ACTUACIÓN
DEL PLAN DE MOVILIDAD SOSTENIBLE DE IGORRE

Orrialdea/Página:1/ 5

| | | |
|---|---|---|
| Data: 2009/09/30 Fecha: 30/09/2009 | Ordua: 19:00 – 21:00 Hora: 19:00 – 21:00 | Lekua: Kultur - Etxea Lugar: Casa de Cultura |
|---|---|---|

Parte-Hartzaileak/Asistentes:

Gizartea/Sociedad:

- 12 Herritar, 12 ciudadanos/as

Kontsultaria/Consultora:

- Ainhoa Ugalde / Amaia Abanzabalegi / Juan M^a Lersundi(BITAKA)

| 1. Saludos y agradecimientos | 1. Aurkezpena eta esker onak |
|---|--|
| <p>Se da la bienvenida y agradece a todas las personas asistentes por su participación, subrayando la importancia de su colaboración en este Foro de presentación de las Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre.</p> <p>Coincidiendo con las diferentes fases de redacción del mencionado plan, se ha entendido preciso convocar este segundo foro de participación ciudadana para debatir las propuestas y para que puedan ser sometidas a un contraste con las opiniones y la visión de la ciudadanía en general. Una vez terminado el proceso de participación, las aportaciones se tendrán en cuenta en el Plan de Acción.</p> | <p>Ongietorria eman zaie bertaratuei eta aldi berean eskerrak eman zaizkie euren parte-hartzeagaitik. Euren laguntzaren garrantzia nabarmendu da Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren planaren ekintzen proposamenak aurkeztu diren foro honetan.</p> <p>Plan horren faseak aurrerantza doazen heinean, bere edukiak aztertzeko, herritarrengana jo da bigarren foro hau antolatuz. Denen artean ekintzen proposamenen inguruan eztabaida burutzea da bigarren foro honen helburua.</p> <p>Partaidetza prozesua bukatu ostean jasotako ekarpen guztiak Ekintza Planerako kontuan hartuko dira.</p> |
| 2. Presentación del borrador de Propuestas de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre | 2. Igorreko Mugikortasun Iraunkorreko Planaren Ekintza Proposamenen aurkezpena |
| <p>Los técnicos de Bitaka realizan la presentación del borrador de Propuesta de Actuaciones del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre mediante la ayuda de una presentación por ordenador.</p> <p>En dicha presentación entre otras cuestiones se exponen los siguientes contenidos: las conclusiones principales extraídas del diagnóstico, las proyecciones de futuro en materia de movilidad, los objetivos que se han tenido en cuenta a la hora de definir el borrador de actuaciones y las propuestas de actuaciones concretas, en fase de borrador, del Plan de Movilidad Sostenible de Igorre.</p> <p>Así mismo, durante toda la exposición se subraya que las propuestas se recogerán en un documento definitivo.</p> <p>Dado el número de asistentes, se opta por realizar una</p> | <p>Bitakako teknikariek Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren Planaren Ekintzen Proposamenak zeintzuk diren azaldu dute, ordenagailu bidez proiektatutako aurkezpen bat lagun.</p> <p>Aurkezpenaren edukiak, besteak beste, honako hauek dira: diagnosiaren ondorio nagusiak, etorkizunera begira mugikortasunaren inguruan dauden plangintzak, ekintzen proposamenen zirriborroa egituratzekoan kontutan izan diren helburuak eta Igorreko Mugikortasun Iraunkorraren Planak izango dituen ekintzen proposamen zehatzak, zirriborro eran.</p> <p>Argi utzi nahi izan dute aurkeztu den dokumentua zirriborro bat dela, behin-behineko dokumentua beraz. Herritarren ekarpenekin osatua izango da behin betiko dokumentua.</p> <p>Bertaratutako jende kopurua kontuan izanda, aurkezpen irekia egitea proposatu da, bertaratuen ekarpenetara irekia, eta</p> |



| | |
|--|---|
| <p>presentación abierta y comentada por los/las mismos/as y posteriormente iniciar un debate.</p> | <p>gerora eztabaida bat egin da aurkezpenaren inguruan.</p> |
| <p>3. Debate sobre la presentación</p> | <p>3. Aurkezpenari buruzko eztabaida</p> |
| <p>EN RELACIÓN A LAS PROPUESTAS PRESENTADAS</p> <ul style="list-style-type: none"> - El estudio propone dos alternativas para el cruce entre Sabino Arana y San Juan. Respecto a estas dos alternativas varios de los participantes han expresado su opinión, y la mayoría de ellos se decantan por la alternativa nº 1. En su opinión la segunda alternativa generaría mayor tráfico en dirección a Bilbao. - Respecto a la propuesta de configuración de Lehendakari Agirre, de la que se ha presentado una sección, uno de los participantes pregunta si el aparcamiento no sería mejor que se hiciera en batería (tal y como se ha implantado en Zornotza). Los técnicos de la consultoría responden que la propuesta de sección es una de entre muchas posibilidades existentes. Ante el concurso para la reconversión de Lehendakari Agirre, opinan que convendría que se siguieran los criterios expuestos, pero que el diseño definitivo puede ser perfectamente otro siguiendo los mismos criterios. - La propuesta de actuaciones también propone que Elexalde sea de único sentido en un tramo. Se ha comentado que este planteamiento debería hacer una especie de bucle. SE HA ECHADO DE MENOS... - Una participante afirma que echa de menos que no se haya propuesto ninguna actuación para establecer un transporte público relacionado con el ocio para las noches de fin de semana. En el foro de diagnóstico también afloró este tema. Los técnicos de la consultoría aducen que cuando se realizó el estudio se sabía que se estaba estudiando por otras vías el transporte público de Arratia y que además todavía no se tiene información sobre la reestructuración de Bizkaibus que ha llevado a cabo la Diputación, y que sin disponer de esta información no se propuso ninguna nueva línea. De todos modos, se ha afirmado que la Diputación no va a subvencionar un servicio como el planteado. Aitor Uriguen informa sobre una iniciativa que quiso llevar a cabo con los taxistas de Arratia. Esta iniciativa consistía en un servicio de taxis que partiría de Lemoa, financiado en parte por la Mancomunidad. Por desgracia solamente un taxista se ofreció a dar este servicio. El foro opina que este tipo de | <p>AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN INGURUAN</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sabino Arana eta San Juaneko bidegurutzerako bi aukera ematen ditu azterketak. Bi aukera hauei buruz iritziak azaldu dituzte bertaratutako hainbatek, eta lehen aukera dute gustokoen gehienek. Bigarren aukerak antza Bilborako trafiko gehiago eragingo lukeela uste da. - Lehendakari Agirreko proposamenari buruz, aparkalekua nola planteiatzen den ikusita, ea baterian aparkatzea (Zornotzan ezarrita dagoen moduan) ez litzatekeen hoba galdetu du parte-hartzaile batek. Aholkularitzako teknikariek esan dute proposatzen den aukera hainbat aukera desberdinen arteko proposamena dela. Lehendakari Agirrereren diseinu berrirako lehiaketa egin denez proposaturiko irizpideak jarraitzea komeniko litzateke, baina diseinuak ez du zertan azterketan azaltzen den proposamenarekin bat egin. - Elexalden zentzu bakarreko tarte bat proposatzen du azterketak. Zentzu bakarreko planteamenduak bukile antzeko bat egin beharko lukeela esan da. FALTAN BOTA DA... - Ekintzen proposamenetan aste bukaeretan gauetarako garraio publikorik ez dela proposatzen esan du parte-hartzaile batek. Diagnosiaren aurkezpena egin zenean ere azalatu zen gaia da hau. Aholkularitzako teknikariek zera erantzun dute: azterketa egin zenean Arratiako garraio publikoari buruzko azterketa abian zen eta bestetik Foru Aldundiak Bizkaibusen birrantolaketa azterketa bat ere bazuen esku artean, beraz beste azterketa bi hauen emaitzak jakin arte linea berririk ez da proposatu. Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiak horrelako zerbitzurik ez duela ipiniko esan da, eta Aitor Uriguenek duela hiru bat urte abian jarri nahi izan zuen ekimen bat plazaratu du: Arratiako taxilariekin berba egin zuen Lemoako geltokian zerbitzua eman zezaten, Mankomunitateak finantziatutako zerbitzua hain zuzen. Tamalez taxilariak ez ziren prest egon. Mota honetako ekimenak bultzatzea ekimen aproposa litzatekeela aipatu da, etorkizun baterako balizko konponbidea izan daitekeela. - Faltan bota da baita ere kamioi pisutxuak herrigunetik ez igarotzeko disuasio-neurriren bat proposatzea, batez ere |



iniciativas pueden ser acertadas y que en un futuro cercano puede ser la solución.

- Se ha echado en falta alguna medida disuasoria para que los camiones no circulen por el núcleo urbano (sobre todo en cuanto a las empresas que quedarán fuera del ámbito de la variante). Varias personas están de acuerdo en que una buena medida puede ser establecer una prohibición.

APARCAMIENTO

- Uno de los presentes no ve cómo se puede arreglar el problema del aparcamiento. Le han gustado las propuestas realizadas para el núcleo urbano, pero muestra su preocupación por el aparcamiento, dónde irán a aparcar los coches que suelen estar actualmente.

- Otro de los participantes menciona que uno de los problemas del aparcamiento es que hay trabajadores que aparcan en el núcleo urbano y dejan su vehículo durante toda la jornada aparcado, como los trabajadores del centro del municipio.

TRANSPORTE PÚBLICO

- Aitor Uriguen traslada las conclusiones derivadas del Estudio de Movilidad de Arratia en cuanto a transporte público. Estas son algunas de las medidas propuestas:

. Establecer un servicio de "taxi rural" en Arratia (sobre todo para garantizar la movilidad de los núcleos rurales).

. Aumentar el número de servicios de autobús desde Zeanuri a Bilbao en 11 servicios, que se darían en horas punta, acción que facilitaría que la movilidad al trabajo se realizara en transporte público.

. Se descarta la idea de un autobús lanzadera a la estación de tren de Lemoa. Por una parte, porque se "obliga" a la gente a usar el tren y por otra porque las líneas de autobús existentes pueden cumplir esta función lanzadera.

. Aunque no sea competencia de los municipios de Arratia, el transporte público es demasiado caro y no dispone de una política tarifaria que busque la fidelidad de usuarios/as.

MOVILIDAD LABORAL

- Se comenta que Arratia dispone de muchas fábricas, pero que si el perfil profesional de una persona no está dirigido a la industria, el trabajo está fuera de la comarca.

- Respecto a las emisiones de gases nocivos, un participante realiza la siguiente reflexión: si se usara el transporte público las emisiones se reducirían a la mitad, pero para ello se tendría que extender mucho el uso del transporte público.

sahiesbidearen eremutik kanpo dauden enpresei dagokienez. Disuasio-neurri egoki bat mota honetako ibilgailuak herrigunetik igarotzea debekatzea izan daitekeela esan dute hainbat bertaratuk.

APARKALEKUAK

- Bertaratutako batek ez du argi ikusten aparkalekuen arazoa nola konpon daitekeen. Herrigunerako luzatu diren proposamenak gustokoak ditu, baina aparkalekuen arazoa nola konpon daitekeen, hori da bere ardua.

- Hirigunearen adibidea jarri du parte-hartzaile batek. Antza, bertako langileek herrigunearan aparkatzen dute, eta beraien ibilgailuak ez dituzte egun osoan lekuz aldatzen.

GARRAIO PUBLIKOA

- Aitor Uriguen-ek Arratiako Amankomunazgoak mugikortasunari buruz agindutako azterketa baten garraio publikoari buruzko ondorioen informazioa luzatu du. Azterketa horrek hurrengo neurriak proposatzen ditu:

. Auzo taxi edo "taxi rurala" ezartzea Arratian (landa auzoetako biztanleen mugikortasuna bermatzeko batez ere).

. Zeanuritik Bilborako autobusek 11 joan-etorri gehiago egitea proposatzen da, puntako orduetan batez ere, lanerako mugikortasuna garraio publikoz burutzea erraztuko luke.

. Lemoako tren geltokira joango litzatekeen autobus "lantzadera"n ideia alde batera uzten du azterketak. Alde batetik jendea trena hartzera behartzen delako eta gaur egun dauden lineek ere bete dezaketelako lantzadera funtzio hau.

. Arratiako Udalen eskumenetatik kanpo dagoen arazo bat badu garraio publikoak; garestiegia da eta ez du fideltasuna bilatzen duen politika tarifariarik.

LANERAKO MUGIKORTASUNA

- Arratian, fabriketan lan ugari omen dago, baina bertako jendeak ez badu fabriketan lanik egiten eskualdetik kanpora joan beharra dauka.

- Gai honekin lotuta, ingurumenerako igorpenak dira aipagai. Hausnarketa bat egin du parte-hartzaile batek: garraio publikoa erabilita igorpenak erdira jeistea lortu ahal izango litzateke. Baina, horretarako garraio publikoaren erabilpena asko hedatu beharko litzateke.

- Puntako orduetan ematen diren auto-pilaketei buruz, bertaratutako baten esanetan, lantokiak beraien ordutegiak apur bat mugituta konpon daitekeen arazoa da. Beste parte-hartzaile batek zera hausnartu du: agian ez da hain larria auto-pilaketa hauek ematea. Ez balitz hain agerikoa gehiegizko



**IGORREKO II. MUGIKORTASUN FOROAREN AKTA:
IGORREKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN
PLANAREN EKINTZA PROPOSAMENAK**
*ACTA DEL II FORO DE MOVILIDAD DE IGORRE:
PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS DE ACTUACIÓN
DEL PLAN DE MOVILIDAD SOSTENIBLE DE IGORRE*

Orrialdea/Página:4/ 5

- Respecto a las retenciones en hora punta, se dice que si las fábricas flexibilizaran sus horarios de entrada y salida se podrían evitar dichas retenciones. Otro participante apunta que quizá no sea malo que se den retenciones, porque así se visibiliza el problema y si no quedaría oculto.

- Se habla de cómo se podría reducir la movilidad laboral. Han surgido varias ideas, que habría que estudiar específicamente. Por ejemplo, las fábricas podrían dar prioridad de aparcamiento a aquellos vehículos con alta ocupación (se propone que si un coche va con 3 ocupantes tenga aparcamiento gratis y si solo va una persona se cobre). Se ha planteado también si el Ayuntamiento podría ejercer algún tipo de presión, aplicando por ejemplo algún tipo de rebaja en impuestos municipales a aquellas empresas que impulsen acciones de compartir coche.

- Aunque parezca que las retenciones se produzcan por personas que no son de la comarca, en opinión de participantes en el foro, los habitantes de Igorre también tienen parte en ello. Como ejemplo, se indica que muchas personas van en coche desde Olabari a Batz.

PROBLEMAS PUNTUALES

- Ha salido el problema de Funyectal, ya que en esta empresa no hay un espacio para la carga y descarga, y ésta la realizan en la calzada, afectando a la circulación.

IDEAS

- Un participante aporta su idea de poner una rotonda para ir de Gezala hacia Ormazaba, poquito antes de Firestone.

IMPRESIÓN GENERAL

- Una persona expresa su contento por la oportunidad que se ha tenido para hablar de estos temas en el foro. En su opinión es necesario trabajar el tema de la movilidad en las escuelas e instituto, en miras a conseguir un cambio de comportamientos. Se ha comentado asimismo que hay que trabajar sobre este tema en clave de sensibilización.

- Otro de los participantes comenta que las ideas sobre las que se ha debatido han sido muy buenas y que habría que ver cómo se materializan las propuestas y realizar un seguimiento.

- Varias personas afirman que el Plan de Movilidad debería tener un amplio consenso. La política es cambiante, y el futuro del Plan no debería depender de quién esté en el Ayuntamiento. Si se consiguiera este consenso, y si el Plan fuera aprobado por todos los partidos, las iniciativas

trafikoaren arazoa ezkutuan geldituko litzatekeela esan du.

- Lantokiek sortzen duten mugikortasuna nola murriztu ahal den da hizpide jarraian. Hainbat ideia azaleratu dira, nola gauzatu daitezkeen aztertu beharko litzateke baina. Adibidez, lantokiek aparkatzeko lehentasuna okupazio altuko ibilgailuei eman diezaietela esan da (3 pertsona badoaz auto baten aparkalekua doan izatea eta pertsona bat bakarrik badoa ordaintzea proposatu da). Udalak zergen bidez "presio"ren bat lortu dezakeen ere planteiatu da, adibidez zergetan murrizketa bat egitea autoa partekatzeko ekimenen bat bultzatzen duten enpresei.

- Auto-pilaketen arazoa kanpotarrek sortzen dutela ematen duen harren, bertaratutako baten esanetan Igorreko biztanleek ere badute zerikusirik arazo horretan. Adibide legez Olabarriko auzotik Batz-era joateko autoa erabiltzen dutenak asko direla esan du.

ARAZO PUNTUALAK

- Funyectal-en arazoa azaleratu da, lantoki honek ez baitu zamalanak egiteko ganorazko tokirik, eta 40 tonako kamioien kargatzea edo hustutzea trafikoa eragotziz egiten dutela esan da.

IDEIAK

- Gezalatik Ormazabaleruntz joateko aukera izateko Firestone baino apur bat lehenago biribilgune txiki bat ezartzea proposatu du parte-hartzaile batek.

INPRESIO OROKORRA

- Bertaratutako bat pozik omen dago azaleratu diren gaien inguruan. Bere ustez beharrezkoa da eskolatan eta institutuan mugikortasunaren gai hau jorratzea, etorkizunera begira aldaketa bat sortu beharra dagoela ere esan du. Gai honen inguruan sentsibilizazioa landu beharko litzatekeela ere esan da.

- Azaldutako ideiak oso onak direla esan du parte-hartzaile batek. Ideiak eta irizpideak onak izanik proposamenak ezartzekoan nolabaiteko jarraipena egin beharko litzatekeela esan du baita.

- Mugikortasun Planak adostasuna eduki beharko lukeela azpimarratu dute hainbat partaidek. Politika aldakorra dela, eta Udalean nor egon edo ez egon, Udalak mota honetako ekimenen alde egin beharra duela. Adostasun hau egonez gero, eta Plana onartua izaten bada alderdi guztien aldetik, ekimenak bete egin beharko direla esan da. Konpromisu edo lotura bat beharrezkoa dela esan da.



**IGORREKO II. MUGIKORTASUN FOROAREN AKTA:
IGORREKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN
PLANAREN EKINTZA PROPOSAMENAK**
*ACTA DEL II FORO DE MOVILIDAD DE IGORRE:
PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS DE ACTUACIÓN
DEL PLAN DE MOVILIDAD SOSTENIBLE DE IGORRE*

Orrialdea/Página:5/ 5

| | |
|---|---|
| <p>propuestas deberían llevarse a cabo. Se ve necesario un compromiso o una vinculación.</p> <p>- En relación a este tema, se opina que encontrar un consenso sobre los criterios o las bases generaes no debería suponer problema alguno. La remodelación de Lehendakari Agirre puede ser una buena oportunidad para buscar este consenso.</p> | <p>- Irizpide orokorreii buruz adostasuna lortzea ez litzatekeela hain gatxa izan behar esan da. Lehendakari Agirrereren birmoldaketa aukera egokia izan daiteke adostasun hau lantzeko.</p> |
| <p>4. Agradecimientos y despedida</p> | <p>4. Esker onak eta agurrak</p> |
| <p>Una vez finalizado el diálogo entre ciudadanía, se expone que se levantará el acta de la reunión mantenida, posteriormente se enviará al Ayuntamiento por último se pondrá a disposición de toda la ciudadanía.</p> <p>Por último, se agradece a todas las personas su presencia y participación en este Foro.</p> | <p>Herritarrekin elkarrizketa bukatu ostean, burututako batzarraren akta egingo dela azaldu da. Udalera onartzeko bidali eta onartuta denean herritarrei zabaldua izango da akta hau.</p> <p>Azkenik, bertaratuei foro honetan izan duten parte-hartzea eskertu zaie.</p> |